

Naiara Garcíaren hitzak

Naiara García da gure gazteko irakaslea, Leizaranen klasea ematen duen irakasleetako bat da. Gaur elkarrizketa bat egingo diogu. Ez dugu oso ondo ezagutzen eta horregatik egingo diogu elkarrizketa bat berari buruz pixka bat gehiago ezagutzeko.

Zenbat urte dauzkazu?

-Nik berrogeita bost urte ditut.

Zergatik hasi zinen gaztelania irakasten?

-Oso galdera zabala da, niri hizkuntzak gustatzen zaizkit eta horregatik hasi nintzen irakasten.

Zenbat urterekin hasi zinen gaztelania irakasten?

-Zehatz mehatz ez dakit baina hogeita hamar inguru.

Txikitan nahi zenuen irakaslea izan edo beste lanbide bat nahi zenuen?

-Ez nuen irakaslea izan nahi, txiki txikitan abokatua, gero detektibea eta gero pixka bat idazmenarekin lotutako zer bait.

Jakin nahi genuke, zenbat urte daramatzazu Leizaranen irakaslea izaten.

-Ni ez naiz finkoa Leizaranen, egon nintzen hemen duela lau urte bi urte jarraian, gero haurdun geratu nintzen eta baja hartu nuen. Gero lehengo urtean hemen egon nintzen eta aurtan ere.

Zein zen zure irakasgai gustokoena txikitan?

-Gazte literatura zeren guk geneukan lengua dela gramatika eta literatura geneukan niri biak gustatzen zitzaizkidan . Lengua, Latina, Ingelesa, Historia eta Filosofia gustatzen zitzaizkidan.

Gustatzen zaizu irakaslea izatea?

-Bai, gustatzen zait baina batzuetan gusturago zaude beste batzuetan baino, zeren inoiz ez dakizu ikasleak nolakoak izango diren.

Ondo eramaten zara Leizarango irakaslerekin?

-Bai, oso ondo, oso giro polita dago.

Jakin nahi genuke beste eskoletan Gaztelania irakatsi al duzun.

-Bai, irakatsi dut, Nafarroan hasi nintzen hangoa naizelako eta Lizarran, Tuteran dago Nafarroatik behera, Iruña ondoan 3 urte egon nintzen eta gero Gipuzkoan Donostin, Ordizian, Lasarten...

Amaitzeko, azken galdera. Zer hizkuntzetan hitz egiten dezu?

-Orokorrean nik euskeraz hitz egiten dut etxean euskeraz hitz egiten dugu, gurasoekin ere bueno nire aitarekin elkarrizketa zailagoa denean agian erderaz baino, euskeraz hitz egiten dut Gipuzkoan bizi garelako.

Nahia, Laia eta Queen
2024ko azaroaren 13an